

EUSKAL HEDABIDEEI BABESA

2003. urtean Auzitegi Nazionaleko Del Olmo epailearen aginduz Egunkaria kazeta itxi eta bertako zuzendaritza atxilotu zuten. Egunkari ororen itxiera adierazpen askatasunaren aurkako eraso larria da. Aurretiaz Egin, Egin Irratia eta Ardi Beltzarekin gertatu bezala, ahotsik gabe utzi nahi izan zituzten langile, bazkide eta irakurle asko, eta horiekin, herri baten ahotsa.

Hau gutxi balitz, operazio hartan auzipetutako lagunek, haien artean Iñaki Uriarazarrak, atxiloaldian tortura larriak jasan zituzten. Epaitu gabe prebentiboki espetxeratu zuten zarauztarra hainbat urtez. Kartzelatik libre, kalean zelarik ere, hamaika urtez luzatu zuten auzibidea.

Azken asteotan jaso dugu kasua behin betiko artxibatu denaren berria. Berri pozgarria da inondik inora, baina berandu dator. Berandu dator egunkari bat itxi zutelako, langileak kaleratu behar izan zituztelako, hainbat lagun, horien artean Iñaki Uriarazarra, atxilotu eta torturatu zituztelako, hauek arrazoirik gabe espetxean eduki eta hamaika urteren buruan ezagutu behar izan dutelako justizia, halakorik egin dela esan badaiteke.

Hala eta guztiz ere, ez dirudi absoluzioarekin Egunkaria osteko Berria egunkariari itxieraren Damoclesen ezpata kendu zaionik. Absoluzioaren berria izan eta bi astera, Eusko Jaurlaritzak Berriari eta Hamaika Telebistari eman beharreko dirulaguntza nabarmen jaitsi duenaren berri izan dugu. Egunkaria epaileen eskariz itxi bezain deitoragarria iruditzen zaigu beste erakunde batzuetatik hedabide hauek ekonomikoki itotzeko egiten ari diren ahalegina.

Berria egunkaria euskarazko komunikabideen artean erreferentzia nagusienetako bat da. Estrategikoa da euskararen adierazpen idatziari dagokionean eta, herri honetan bertan kazeta honetan lan egiten duten langile asko daude.

Amaitzeko, aipatu nahi dugu, proportzioan Berriak Euskal Herrian harpide gehien dituen herria dela Zarautz.


HONAKOA ESKATZEN DUGU

- 1) Iñaki Uriari eta Egunkaria auzian auzipetutako guztiei gure elkartasuna adierazten diegu. 11 urteko ibilbide honetan egunkariaren itxiera, atxiloteta, torturak, kartzelaldia pairatu behar izan dituzte, batere justiziarik gabe.
- 2) Egunkaria auziaren absoluzioa berandu dator. Baina egunkari horrek suposatu zuenagatik, gure eskerrona azaldu nahi diegu Egunkarian lanean aritu ziren zarauztar guztiei. Egunero euskaraz bizi daitekeenaren adibidea izan zarete.
- 3) Egunkaria auziaren absoluzioaren berri jakin eta Berria egunkariari eta Hamaika

Telebistari dirulaguntza murrizteagatik gure kexua helarazi nahi diogu Eusko Jaurlaritzari.

- 4) 2014ko iraileko udalbatzarrean eskualdeko euskarazko hedabideei dirulaguntza handitzea onartu genuen bezala, oraingoan, Eusko Jaurlaritzari Berriari eta Hamaika Telebistari eman beharreko dirulaguntza gutxienez iazko kopuruetera itzul dezala eskatzen diogu.
- 5) Euskalgintzan duen eraginagatik eta sektore horretako erreferentzia nagusia izaki, bi proiektuen biziraupena baldintza duinetan berma dezala eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari.
- 6) Zarauzko Udalak #BabestuBerria ekimenaren baitan Berriari eta Hamaika Telebistari 5.000na euroko publizitate laguntza ematea ebazten du.

Bilduko bozeramailea



Aralar-Ezker Anitza udal taldearen zinegotzi bat

